

## Hilaren 23an jokatuko da Gorbeia Suzien Skyrunner lasterketea Zeanurin

Gorbeia Suzien 32 kilometroko lasterketea puntuagarria da Munduko Kopako finalera sailkatzeko eta 600 mendi lasterarik emon dabe izena parte hartzeako. 21 kilometroko lasterketan beste 200 partaide izango dira. Herrian jai giroa gauera arte luzatuko da. Hurrengo egunean, domekan, umeentzako lasterketea egongo da. **14. orrialdea**



## Dana dago prest Dimetal Fest-erako

**H**ilaren 29 eta 30ean, bariku-zaptuan, Diman, musika zaleek galdu ezinezko zitea daukie. Nazinoartean gero eta ezagunagoa dan Bartzelonako We Exist Even Dead eta Euskal Herriko Kobra, Pi L.T. eta Asgarth talde mitikoak egongo dira, euskal metalaren ordezkari diran beste 7 taldegaz batera. Euren artean, Arratiako Kristonak rock taldea, bere errepertoriotik gogorrena joko dauana. Kontzertuen ostean dj-ak egongo dira egun bietan, jaia barikuan goizaldeko 04:00ak arte eta zapatuan 05:00ak arte luzatuz.

Kontzertuez gainera, mahai-inguru, metal bertso bazkaria eta azokea egongo dira. **8. eta 9. orrialdeak**



## Arantzazuko alkateari alkarrizketea



Maiatzeko hauteskundeak bigarren irabazita, Asier Aburtok (EH Bildu) hartu eban aginte makilea Arantzazun eta beste lau urtez alkate izango da. Arantzazuko alkatea alkarrizketatu dau zenbaki honetan BEGITUK. **11. orrialdea**

### IGORRE

## Igorreko Euskerearen jai, Inbiu eguna hilaren 16an ospatuko da

Familientzako antzerki animazioa, herri bazkaria eta bazkalosteko jantzaldiagaz ospatuko da eguna. Inbiu egunaren helburua herrian euskerearen erabilera bultzatzea da eta edade guztietako jentearentzako aisialdiko jarduerak antolatu ditu Igorreko Euskara Zerbitzuak horretarako. **5. orrialdea**



### ARRATIA

## Ez ohiko txingor denporaleak kalteak itxi dauz herrietan

Igorre, Dima, Areatza, Artea eta Arantzazun batez be egin eban kalteak urri lehenengoaren 11n, hogeit bat minutuz, 17:00etan, botatako ineta-ziak. Ehundaka kotxeen kristalak apurtu, teilatuak hondatu, hodiak zulatu... etxe eta lokaletan ura sartu zan eta landa eremuan negutegi eta pabiloiak kaltetu ziran. Persona bat be zauritu eban txingorrek Igorren. **6. orrialdea**



### ARTEA

## Merkarteak baserri giroa ekarriko dau herrigunera

Urri lehenengoaren 16an izango da Artean, merkadua eta baserri giroko euskal kulturearen jai bat-zean dauzan Merkartearen 29. edizioa. Merkadua 10:00etatik 15:00etara izango da eta bertan inguruko produktuak egongo dira salgai. Hasikerako ohiturea berreskuratu guran, baserriar jantzi doazentzako *photocall*-a egongo da.

Arastian eta gauean euskal musikeak hartuko dau protagonismoa: 18:00etan, Taberna Ibiltaria ibiliko da heritik, 21:00etan, Kuttune folk taldeak kontzertua eskainiko dau eta 23:30ean, Bidean taldeagaz erro-meria egongo da. **5. orrialdea**



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXI). Kale berbakunea sustatu guran

#### HITANOAREN GAINEKO HAUSNARKETEA:

- Zelan **habil** Aitor aspaldiko!
- Hau kasualidadea!! Zugaz egon gura neban.
- Zer **gurok** ba?
- Hitanoz irakatsi behar deustazu.
- Eta hori? Inoz **eztok** interesik euki bata.
- Ba oin badaukat, begiratu atzo Louis Lucien Bonaparteren mapeari begira nagoala, konturatu nintzan Erronkariko euskereahuneko ehunean galdu zala eta beste lekuetan euskerearen ehuneko berrogeta hamar galzorian dagoala!!
- Zer **dinok**?
- Bai!! Hitanoz ez dakigunok erdi euskaldunak gara!!
- Bueno hi!! Hainbesterako **eztok** izango!! Baina irakastea **gurebok** prest **ñaok** lagun!!

## ERETXIA

### Udarik beroena

**M**unduko Meteorologia Erakundeak eta Europako Copernicus zerbitzu klimatikoak konfirmatu dabe aurtengo uda beroena izan dala erregistroak dagozanetik.

2023. urteko garagarria historiako beroena izan da abuztuagaz jarraituta erregistro klimatikoak hasi ziranetik, hau da, 1940tik.

Samantha Burgess Europako zerbitzu klimatikoaren zuzendariordeak ziurtatu eban, izan doguzan atzen hiru hilabeteak 120.000 urtean izan diran be-roenak izan dirala.

Copernicusek urri lehenengoaren 6an publikatutako datuen arabera, bagiletik abuztura bitartean tenperatureak 16,8 °C markau ebazan batez besteko gainetik. Lau bero olatu izan doguz uda honetan zehar, egun oso beroak eta sikuak izan dira atzen asteotan eta badaukagu Arratia bailaran azken urtean erregistrau dan tenperaturarik altuena, abuztuaren 23an arrastiko 15:55ean 43,3 °C izan genduzan Euskalmetek Igorren daukan es-tazino meteorologikoan. Egun horretan batez besteko tenperatura 28,3 °C-koa izan zan.

Euskal Autonomia Erkidegoan historiako tenperaturarik altuena emon zan, Sodupe herrian (Bizkaia), 45,6 °C eta Laudion (Araba) 44,6 °C erregistrau ziran.

Bero handia izan da protagonista uda honetan baina beste hainbat muturreko fenomeno meteorologiko izan doguz; ekaitza gogorak, euriteak, baso sute handiak, DANA-k...

Alde batetik, datu kezagarriak itxi deuskuez baso suteek adibidez. Momentuz Espainian egon dan sutarik handiena Tenerifen gertatu da, 12.000 hektarea baino gehiago erre ziran eta 2023. urtean oin arte 88.000 hektarea erre dira. Gorbeiaiko parke naturala 4 aldiz baino gehiago guztiz erreko balitz moduan.

Euskal Herrian, Nafarroa izan da uda honetan baso sute gehien izan dauan lurraldea, normalean



### MIKEL UGARRIZA BEOBIDE

Meteo Arratia kontuaren arduraduna

paisaia sikua eta euri gitxi egiten dauanez probabilidade oso handiak egoten dira suteak egoteko. Hau esateak pena handia emoten deust.

Ekaitza gogorak be izan doguz eta azken asteetan DANA batekin euskun bisitea eta kalte katastrofikoak itxi ebazan; Nafarroan, Toledon, Madril komunitadeko hegoaldean, Cuencan eta abar. Uriola kezagarriak itxi abazan eta ordu gitxitan ia 200 l/m<sup>2</sup>-ko pilatu ziran. Nafarroako uriburuan ekaitz gogorren ondorioz ia 100 l/m<sup>2</sup>-ko batu ziran egun baten.

DANA bat definituta oso gaxta da baina siglek hau esan gura dabe: Depresino isolatua maila altuetan, eta normalean gehienegun bi iraun leike, batzuetan hiru egun. Ekaitz gogorak, prezipitazio handia denpora gitxian eta edurra itxi leike.

Izan doguzan muturreko fenomeno meteorologikoak sakon azaldu eta gero, esan neike hurrengo urteak holangoak izango dirala. Aldaketa klimatikoa errealidade bat da eta zaparrada trumoiatsu handiak botatea, gero eta bero gehiago egitea, normalagoa izango da.

Arratia bailaran inoz ikusi dodazan txingor harri handienak izan genduzan urri lehenengoaren 11n. Igorre izan zan herririk kaltetuena, baina Areatza, Artea, Arantzazu, Dima eta Lemoan be handiak bota zituan. Alerta laranja ezarrita egoan eta txingorra 5 cm-ko zabalera baino handiagokoa be izan genduan. Ikusiko da ea zonalde katastrofikoak deklarauko dan, animo herritar guztiei!!

Amaitzeko, datu kezagarriak itxi deuskuz aurtengo udak eta ohitzen joan beharko gara gero eta beroaldi luzeagoak izatera.

Laster udagoienean sartuko gara eta AEMETek egin dau pronostikoa; normalean baino be-roagoa eta hezeagoa izango dala esanez.

ARRATIA/GORBEIALDEAN BIZI ZARA?  
IRLANDAK ERAKARTZEN ZAITU?  
HALAXE BADA,  
GURE PROIEKTUAN SAR ZAITEZKE

**Quiet Corner**  
HERRIARRIEN URUR EXPERIENCE

Pertsona bat (1) behar da asteburuetan  
lan egiteko (eguna, barikua, zapatua,  
domeka. Adosteko).

\* Bidali CVa: [tccorner@gmail.com](mailto:tccorner@gmail.com)  
\* Informazioa: 608 776 603

[www.thequietcorner.eu](http://www.thequietcorner.eu)  
AREATZA

## LUMATUTEN



CLARA LUJA AZPIRI

Imajinatu egizu...  
aireportua

Imajinatu egizu. Bidaia berezi eta luzea egin dozu, dana planeauta dago. Danak joan dira oporretan zu izan ezik, eta egun honeen zain egon zara aspaldi. Ez daukazu egun pilo bat, baina bai plan pilo bat. Eta orduan... desastrea. Kontu teknikoak dirala-ta, zure hegaldia berandutu da eta beste hegaldiagaz konexinoa galdu dozu. Eta, nahiz eta hegazkin konpainiako langileek hasieran esan dana automatikoki konponduko dala, ez da holan.

Gero, zeuk egin behar dozula konexino barria esaten deusue. Makinetan egin ahal dozula edo zenbakia hartu eta persona batek lagunduko deusula. Zenbakiagaz egiteko ilarea ordu bikoa da gitxienez. Makinetan, errorea emoten dau eta zure amorrua handitzen doa. Zure zenbakia deitzean dabererako... Gorri-gorri zagoz.

Zergaitik galdu behar dozu opor egun bat? Zergaitik igaro aireportuko bederati solairutik euren akatsa konponduteko? Ez da

bidezkoa. Ez zuri egin deusua ezta hegaldiko beste guztiei egin deuseena be. Eta hainbeste denpora nonorregaz berba egiteko zain egon ostean, jakinarazoten deusazu hori guztia.

Oin... oin imajinatu beste zeozer. Lanean zagoz, eta makinak eta zerbitzu automatizatuak dirala-ta, gero eta lankide gitxiago daukazu. Ha-ta guzti be, lana bardina da, eta batzuetan gehiago, ordenagailuak arazoren bat badago lana biderkatzen dalako. Aireportuan egiten dozu behar bezeroari arreta emoten, eta nahiz eta zuk ebatzirik hartu ez, kexa guztiak zuri etorten jatzuz. Jentea hase-re dago. Amorratuta.

Jente gehiago, langile gehiago egongo balitz, dana errazago izango zan, hobeto manejaiko zan. Baina jente gehiago hartu beharrean, gitxiago kontratetan dabe. Arazorik badago nagusiek ez dabe arpegia emon behar, eta arazoak azkenean beti konpontzen dira.

Imajinatu egizu zerbitzu langilea zarala eta gauzak hobetu beharrean, txarrera doazela. "Ez dago dirurik", dinoe nagusiek hobekuntzak eskatzen dozuzanean. Baina eurek kotxe barria erosi dabe, eta garestia. Ez da bidezkoa -ez bezeroarentzat, ez langilearentzat-, zerbitzu sektorearen pobretze eta okertze progresibo hau.

Imajinatu... Ez. Seguru asko ez dozu imajinatu beharrik, bizi izan dozu, eta "hau ez da bidezkoa" pentsau dozu. Baina kapitalismoari bardin jako. Dirua egiteko bada... bidezkoa dana eta ez dana, etikea, desagertu egiten da.

## ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

## Egiten dut

**B**atzuetan indar egiten dut  
bekidiezina dena ez gertatzeko  
bizitza desafiatuz

patuari ostikoka  
datorrena etxeko atarian uzteko  
ez nagoenarena egiten  
sinesten ez dudana guztiari errezuka  
fedez zuri horrek balioko balu bezala  
baina egiten dut, barrenetik  
nire egia benetako bihurtzeko  
hain errudun ez sentitzeko  
edo ezer ez gertatzeko  
baina egiten dut, indar eta errezatu  
eta asmatzen ditut  
pertsoneiak, eszenatokia, arropak, istorioa  
nik nahi dudana  
zinez erregutzen  
ez dakit zertarako balio duen  
baina egiten dut  
eta sentitzen naiz munduko pertsonarik inuzenteena, gezurtiena  
baina egiten dut.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduaren ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**U**dan dana ez da eguzkia, beroa eta hondartza eta Euskal Herrian oindino badaukaguz udan, behelainoa eta momentu freskoak, eta Adi mendiko lepoan (Nafarroa), Garazi Urien Ortuzarrek ateratako argazki honek dakarku momentu horreetako bat.


Aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko hamar egun baino ez dira geratzen, hilaren 25ean amaitzen da epea eta. Aurrekoa zenbakian Iker Zamakonak aquariumeko argazkiagaz, eta oingoan Garazi Urienek egin daben moduan, Argazki Lehiaketan parte hartu gura badozu, bialdu lehenbailehen zure argazkiak, hiru gehienez, [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Irabazleak landetxe baten astegoiaren pasa izango dau sarizat.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

**agoa**  
hagin klinikak  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
ikolagata Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06



IGORRE

## Igorrek euskerearen jaia ospatuko dau hilaren 16an

Herrian euskerea bultzatzea helburua daukan Inbiu eguna ospatuko dau Igorrek zapatuan, hilak 16, Lasarte parkean, familientzako antzerki animazinoa, herri bazkaria eta bazkalosteko jantzaldiagaz.

### Erredakzioa

Bazkarirako txartelak Txaparran eta jubiladuen tabernan egon dira salgai.

Edade guztietarako egitaraua prestatu dau Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak. Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaia, Eidabe konpainiaren *Garbijai* antzerki animazinoagaz. Jolasen bitartez hartuko dau parte publikoak kale antzerki honetan, "Galtzerditxo eta Kamiseto" personaiei garbigailua ipinten lagunduten.

Artzeren moduan "Euskerea ez dala galtzen ez dakienek ez

dabelako ikasten, dakienek ez dabelako egiten baino" eretxita, barriketaldietarako aproposena dan herri bazkaria errekupea gura izan dau Euskera Zerbitzuak aurten. Horretarako txartela erosi behar izan da alde aurretik. Menu bi dagoz: bata nagusientzat, 17 euroko prezioan eta beste bat umeentzat 15 eurokoa.

Bazkalostean, Eingo taldeak ipiniko dauz euskal giroa eta animazinoa, jentea jantzan egitera animauz. Jentearen parte hartzea bultzatzea bilatzen dau Iker Allurren taldeak eta holantxe izango da Igorren.



DIMA

## Indusiko auzo eskolako argazkiak batzean dabil Dimako Udala

### Erredakzioa

Indusiko auzo eskolearen sorrerako mendeurrenean, Dimako Udala, Indusiko eskola sasoiko argazkiak batzean dabil erakusketa bat egiteko. Hori dala-ta, deialdia zabaldu deutse eskola haretan ibilitakoei, argazkiak udaletxera eroan dagiezan, han eskaneau eta gero bueltan eroateko etxera. Posta elektronikoz be bialdu daitekez *harrera.dima@bizkaia.org* helbidera.

XX. mendearen hasieran, alfabetismoa arazo handia zan, eta populazinoaren zati handi batek ez ekian ez irakurten ez idazten. Arazoa larriagoa zan landa eremuetako biztanleen artean, gehienak alfabetatu bakoak ziran-ta. Biztanle honek alfabetatzeko asmoz, Foru Aldundia-

ren ekimenez, auzo eskolak eregi ziran Bizkaiko leku askotan eta eurtako bat da Indusikoa, 1923an sortutakoa. Auzo eskola honek garrantzia handia izan eben baserri eremuko jentea eskolatzeko eta 1970eko hamarkadara arte iraun eben gehienek.



ARTEA

## Merkartea: merkadua eta baserri giroko jaia

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 16an izango da Artean, merkadua eta baserri giroko euskal kulturearen jaia batzean dauzan Merkarteren 29. edizinoa. Merkadua 10:00etatik 15:00etara izango da eta bertan inguruko produktuak, ekoizleei eurei zuzenean erosteko aukerea egongo da.

Merkartea 1994an sortu zan eta sasoi baten, jentea bertara baserriar jantzita joateko ohitura eukala dino Gorka Beitia zinegotziak. Ohitura hori galdu egin dala eta Udalak berreskuratu gura daua dino. "Aurten, batez

be, animau gura dogu jentea baserriar jantzita etortera". Horretarako, *photocall*-a eta argazkilaria egongo da, jantzita doazenei "argazki profesionalak" egiteko.

### Arrastian euskal musikea

Merkartea sortu zanetik urtero legez, arrastia eta gaua euskal musikearentzat izaten dira. Aurten, 18:00etan, Taberna ibiltaria ibiliko da heritik, euskal kantutegiko kanturik ezagunenak, jentegaz batera kantauz; 21:00etan, Kuttune folk taldearen kontzertua egongo da eta 23:30ean, Bidean taldearen erromeriak ipiniko dau jentea jantzan.



IGORRE

## 50 komertzio batu dira Bonodenda kanpainara

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 31ra arte erabili ahal diran 3.500 bonu dagoz salgai. Hamar euroren truke erosi daitekez baina hamabost euroko balioa daukie kanpainara atxikitutako 50 komertzioetan eta holan konsumitzaileak, produktua %33 merkeago erosi ahal izango dau. Igorreko Udalak eta AME merkatarien alkarrean antolatutako Bonodenda kanpainaren helburua "merkataritza eta ostalaritza sektoreak dinamizatea eta herriaren irudia sendotzen lagundutea" da.

Bonuak hilaren 22ra arte edo lehenago amaitzen badira, amaitu arte, erosi daitekez Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan astelehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzen eta eguenean, 18:00etatik 20:00etara. Ezin dira hiru bonu baino gehiago erosi, erostean aurkeztutako NAN edo errolda agiri bakoetako.

Erosketa bakoetean, gehienez bonu bi erabili daitekez, baina erosketaren zenbatekoa txikiagoa bada, ez da dirurik itzuliko eta bonuak ezin dira diruaren truke aldatu.



## ARRATIA

## Kalte ugari itxi ditu txingor zaparradeak

Igorre eta Dima izan dira herririk kaltetuenak, eta Areatzan, Artean eta Arantzazun be kotxe, etxe eta negutegi askok izan dabez kalteak.

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 11n, arrastiko 17:00ak baino apurtxo bat lehenago, Arratia erdiko herrietan, zerua ilun-ilun ipini zan eta temperatura asko bajatu zan, ekarrenaren seinale. Minutu batzuk geroago, Igorren, Diman, Areatzan, Artean eta Arantzazun, txingor zaparrada bildurgarria hasi zan, 3 cm-ko diametroko harriak botaz, eta handiagoak be bai. Hogei minutuko tartean, kotxeen kristalak apurtu, teilatuetako teilak eta sabailehioak txikitu eta etxe askotako hodiak zulatu

ebazan inetaziak. Etxe eta lokalak urez bete ziran. Igorren, andra bat zauritu egin zan, harriak euritakoa apurtu eta buruan jota, eta anbulategian artatu behar izan eben. Landa inguruan, ustiapen txiki batzuek kalte handiak izan ditue, negutegiak eta pabiloiak hondatu egin diralako. Oin udaletxeak kalteen erregistroa egiten dabiz eta aseguru etxeetako bulegoetan, jenteak ilarea egiten dau konponketen diru zati bat kobrau ahal izateko.

Igorre eta Dima jo eban denporaleak gogorren. Igorren, persona bat zauritzeaz gainera, etxeetan

kalte handiak egon ziran, teilatuak eta hodiez gainera, persianak be zulatu ebazan denporaleak. "Kalte handiak egon dira batez be, kotxeetan eta etxeetan. Etxeetan, teilatuak, kanaloiak, sabailetako lehioak eta persiana batzuk be apurtu dira eta etxe batzuetan ura sartu da. Auzuneetan etxeak eta negutegiak kaltetu dira. Aseguruak hasi dira mobiduten" azaldu eutsan BEGURI Olatz Urkiza Igorreko alkateak hurrengo egunean.

Diman be handia izan zan kaltea. "Kalteak handiak izan dira. Batez be etxeetako teilatuak apurtu ziran eta ura sartu zan ia auzo

guztietan, etxeak zaharrak zein barriak izan. Olazabal, Aroztegieta, Lamindao, Artaun, Bikarregi, Ziarresta... Kotxeak be, kalean egozan ia guztiak izan dabez kalteak. Frontoiko teilatua be apurtu egin zan eta ura sartu zan. Eguzki plaka pila be apurtu dira" dino Jose Mari Atutxa Dimako alkateak. Udala kalteen zerrenda egiten dabil eta argazkiak batzean.

### Areatza, Artea eta Arantzazu

Areatza, Artean eta Arantzazun be kalte ugari eragin ebazan inetaziak. Denporaleak jotako beste herrietan legez, teilak, hodiak, kotxeak... "kalean harrapatu eban guztiak dauka kalteren bat. Udal lokalen artean, gimnasioa urez bete zan" dino Asier Aburto alkateak.


Artean be, herrigunean, batez be kotxeak eta kanaloak batzuk, Kultur Etxean esaterako apurtu ziran. Landa gunean be kalteak handiak izanda ustiapenetako ekoizleentzat; izan be, negutegiak zulatu eta pabiloi batzuetako

estalkiak apurtu dira, behi esplortazino baten, neguko bedarra busti eta galduz, esate baterako. Industrialdean be, kalteak egon dira hainbat eguzki plaka apurtu diralako.

Areatzan be, kotxeak eta teilatuak apurtu dira batez be eta kalteen neurria jakin ahal izateko, Udalak galdetegi bat pasau deutse herritarrei, kalteen erregistroa egiteko, eta argazkiak bialtzeko eskatzen dabe. Drone bat erabiliko dabe teilatuak ikusteko. Udaletxean be ura sartu zan.

### Ez ohikoa

Urri lehenengoaren 11ko txingor denporalea, gogorra eta oso lokalizaua izateaz gainera, ez da ohikoa. Igorren, zaharrenek akorduan daukie 1970ean botatakoea, harrien tamainuagaitik antzekoa izan zana. Abuztuaren hasieran izan zan eta andramari jaiak bertan behera geratu ziran. Diman barriz, ez dabela inoz holangorik ikusi dino jenteak.



Hau izan zan radarraren argazkia txingorrek harrapatutakoan.

## ARTEA

## Arratiako hainbat bakarlarik zein bikote artistikok kantauko dabe euskal presoen alde

### Erredakzioa

Presoen aldeko Arteako batzordeak, elkarretaratzea eta bazkaria antolatuten dau urtero Merkatea azokan. Aurten barriz, mantenduko da Merkatea eguneko konzentrazioa, hilaren 16an, 13:00etan, udaletxe aurreran, baina, bazkaria egin beharrean, "Kantu terraza" izeneko ekitaldia antolatu dabe bezperarako, 19:00etan. Bertan, Arratiako kantariak hartuko dabe parte, bakarlarik zein bikoteak, eta ostean, mikro irekita egongo da gura dauanak kantau dagian.

Txosna zabalik egongo da egun

bietan eta bertan, mojitoak eta sandwichak egongo dira.

### Arteako jaietan



**KANTU TERRAZA**  
arratiako kantariak +  
mikro irekia + mojitoak +  
sandwichak



**KONZENTRAZIOA**  
Merkatean, udaletxe aurreran

Txosna zabalik jaietan zehar!

**erdu!**



Goian arrautzearen tamainuko txingorra eta behean Igorre. Meteo Arratiaren Facebook kontuko argazkia.

ARRATIA

## Arratiako koroak 6.000 euro emon deutzaz Caritas Bizkaiari



### Erredakzioa

Zezeilaren 4an, Santa Ageda bezperan jasotako 6.000 euroak emon deutzaz Arratiako Koroak Caritas Bizkaiari. Aurten, igaz baino 1.500 euro gehiago bildu ditu koroak. Caritasek pozik eta esker onez hartu daua dirua eta behar diran preminak beteteko erabiliko daua jakinarazo deutzaz BEGITURI korukoek.

IGORRE

## Barrero dago martxan herrian enplegua bultzatzeko programea

### Erredakzioa

Igorreko Udalak barrero ipini dau martxan 3R Tokiko Enplegu Programa, herrian enplegua sustatzen daben baliabide eta ekintzak aktibetako. Herriko langabetuentzako zerbitzu hau, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze eta Berdintasun Sailak finantzietan dau.

Zerbitzuak, orientazioa, lan aktibazioa, gaitasun digitaletako prestakuntza eta enpresakaz topaketak eskaintzen ditu, lana bilatzeko beste tresna batzuek batera.

Igorreko langabetuei dago zuzenduta eta 20 plaza dagoz. Izena, hilaren 30era arte emon daiteke

94 602 62 09 telefonoan edo [beharbide@aldalan.com](mailto:beharbide@aldalan.com) helbide elektronikotan. Lehentasuna eukiko dabe iraupen luzeko langabeek, 45 urtetik gorakoek, gazteek, andrek eta gizarte bazterketa edo honen arriskuan dagozan pertsonak.



ARRATIA

## Sanmigelak, udagoieneko lehenengo jaiak, hainbat auzotan ospatuko ditue

Asko dira San Migel izenpeko ermitak Arratian:

Artean, Elexabeitokoa; Igorren, Mikele auzokoa;

Zeanurin bi dagoz, Alzustakoa, zarratuta dagoana

aldi baterako eta Uribekoa.

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 29aren inguruan, aurreko edo osteko astegoienean, ospatuten dira jaiak auzootan. Aurten, Uriben, 16tik 18ra, zapatutik astelehenera ospatuko ditue; Alzustan barriz, 29-30eko barikuzapatuan. Astegoienean horretan, Bedian be, Yeuri-Jauregi auzoan sanmigelak ospatuko ditue. Artean, ardi txakur erakustaldia egongo da San Migel txiki egunean.

### Uribe (Zeanuri)

**Urri lehenengoak 16, zapatua**  
14:00etan, auzo bazkaria; bazkalostean, auzokoen arteko Mus eta Briska Txapelketak.

**Urri lehenengoak 17, domekea**  
11:30ean, mezea. Ostean, barauskarria herriko txistulariakaz.

**Urri lehenengoak 18, astelehena**  
12:00etan, arimen aldeko mezea. 17:00etan, urdaia eta txokolatea.

### Elexabeiti (Artea)

**Urri lehenengoak 29, barikua**  
12:00etan, mezea eta barauskarria.

**Urri lehenengoak 30, zapatua**  
17:00etan, Bizkaiko ardi txakurren erakustaldia. Alderdietxeko landetan.

### Mikele (Igorre)

**Urri lehenengoak 29, barikua**  
12:30ean, mezea. Ostean barauskarria eta herriko trikitilariak. 18:00etan, pailazoak, Antxo ta

Pantxaren *Gurekin konektatu* ikuskizuna.

19:00etan, parrilladea.

20:00etan, erromeria Gauargi taldeagaz.

### Alzustakoa (Zeanuri)

**Urri lehenengoak 29, barikua**  
18:30ean, Mus Txapelketarako izen-emotea.

19:00etan, Mus Txapelketea.

### Urri lehenengoak 30, zapatua

14:00etan, auzo bazkaria.

17:00etan, Briska Txapelketea.

17:30ean, Bola-joko Txapelketea.

19:00etan, Eingo taldea; musika eta jantza artean, txorizoa eta urdaia.

### Yeuri-Jauregi (Bedia)

**Urri lehenengoak 30, zapatua**  
12:00etan, jaien hasikerea eta pintxo-potea.

13:00etan, Igel Txapelketea.

14:30ean, auzo bazkaria.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak eta jolasak.

20:00etan, txokolatea eta bingoa.

21:00etan, disko festa.

### Urri bigarrenak 1, domekea

14:00etan, VIII. Pintxo Lehiaketea.



ARRATIA

## Aurten be hainbat enpresek sinatuko dabe euskereagazko daukien konpromisoa

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 22an, 12:00etan, Zulaiabar Kanpusean, Errota Fundazioak kudeatzen dauan eusGara proiektura atxikitutako enpresa barriek lan munduan euskerea bultzatzeko hartutako konpromisoa sinatuko dabe. Sinatze ekitaldian, Errota Fundazinoak batera, Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea, Isaac Amezaga Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria, Arratiako udaletako ordezkariak eta eragileak egongo dira.

Urtean-urtean gero eta gehiago dira konpromisoa hartzean daben Arratiako enpresak eta aurten lan arlo barrietara zabalduko dala azaldu deutzaz BEGITURI Errota Fundaziotik. Konpromiso

horren trukean, eusGara-k eskaintzen deutsez debaldeko zerbitzuez baliatu ahalko dira euskerearen presentzia handitzeko. Igaz, 24 enpresek sinatu eben arlo sozioekonomikoan euskerea

bultzatzeko hitzarmena.

Errotak, lan munduan euskerearen egoeraren "argazkia" egingo dau eta ikasturte barrirako "erronkak" azalduko deutsez enpresa ordezkari eta eragileei.



begitu  
eus

amorrortu  
taberna - jatetxea - ostatua

OSTATUA

638 712 523

Zabiate 1, • 48130 LEMOA - Bizkaia  
[www.alojamientolemoa.com](http://www.alojamientolemoa.com)  
[info@alojamientolemoa.com](mailto:info@alojamientolemoa.com)

## DIMETAL

# Euskal metalaren jaia eta metal euskal jaia izango da aurten be Dimetal Fest

Hilaren atzenengo bariku-zapatuan, urri lehenengoaren 29 eta 30ean, Dimetal Fest jaialdiaren VII. edizinoak euskal metala eta jaia buztartuko ditu beste behin. Diman, 11 bandak joko dabe: Euskal Herriko hamar eta Bartzelona inguruko batek.

## Erredakzioa

Mahai-ingurua, azokea, bazkaria eta bertsoak be egongo dira, kontzertuetatik harago doan Dimetal Fest jaialdian.

Aurten be, euskal metalaren jaia izango da Dimetal Fest; izan be, 11 taldetik 10 dira Euskal Herrikoak eta euretako askok euskeraz -edo euskeraz eta ingelesez edota gaztelaniaz- kantetan dabe. Euskal metalaren jaia eta metalaren euskal jaia be bai; euskerearen presentziak berak eta "metalbertsoek" emongo deusielako euskal giroa jaialdiari. Hori dala-ta, heavy metala euskal giroan gozatuteko aukerea egongo da Diman.

Barikuan, urri lehenengoaren 29an, 18:00etan, hasiko da jaialdia. Egun horretan, Durangaldeko Penny Fleck (rock), Bilbo inguruko Alma Culter (street metal), Gernikako Bullets of Misery (rural death metal), Donostiako Asgath (heavy metal) eta Mungiaiko Pi L.T. (heavy metal) taldeak dira jotekoak. Ostean, 04:00ak arte, dj-a egongo da.

Zapatuan, egun osoa hartuko dau jaiak; egunez, aisialdi eta kultura jarduerak egongo dira eta arrastian eta gauean, kontzertuak. Goizeko 11:30ak aldera, mahai-ingurua egongo da. Bertan, jaialdietako hainbat antolatzailek eta musikariek, tartean, Alma Culter taldeko Marilu Gonzalez Tudancak, jaialdi eredu gainean hausnartuko dabe. Hau da, tokiko jaialdi autogestionau eta irabazi asmorik bakoak vs negozio eredu makrojaialdien gaineko euren bizipenak konpartidu eta ideak eztabaidatuko dabez bertarututakoak.

Bertso bazkari metaleroa 14:30ak aldera izango da. Herriko jentea, musikariak eta zaleak, alkarregaz egongo dira mahaiaren inguruan menua eta barriketal-diak konpartiduten. 18 euroko prezio menua da: entranteak, paellea, edariak, postrea eta kafea. Paella beganoa be badago. Bazkarirako txartelak alde aurretik erosi daitezke Dimako udal-txean edo Baltzola jatetxean edo egunean bertan Dimetaleroak kultur alkartearen txosnan.

Metal bertso bazkarian euskal kultura eta heavy metalaren azpikultura batzean dituen "me-

talbertsoak" egongo dira. Kapi Guarrotxena (Porco Bravo, OST, Unholy Covers) gitarra-jolearen solo batez lagunduta, Oihana Bartra eta Paule Loizaga bertsoari botako dabez bertsoak, estilo honetako musikeari lotutako gaiak jorratuz. Oihana Bartrarentzat ez da lehenengo aldia izango, 2018ko edizinoan be egon zan-eta "metalbertsoak" kantetan. Gai-emoile beharrak Ibon Izak egongo ditu.

Arrastiko 18:00etan hasiko dira kontzertuak. We Exist Even Dead (groove, metalcore) Bartzelonako taldeak eta Euskal Herriko beste bost taldek joko dabe zapatu iluntze-gauean; Galdakaoko Calathea (posthardcore), Zestoako Rodeo (metal), Arrasateko Numen (black metal), Bilboko Cobra (rock, metal) eta Kristonak (rock) talde arratiarrek osotuten dabe egun horretako kartela. Ostean, DJ Jarrok ipiniko dau musikea 05:00ak arte.

Dimetaleroen txosnan, edari eta janari ugari egongo da gaueko ordu txikiak arte.

Eta jaialdiaz gozatzera doazen andre aske disfrutau dagien, Dimako Andraizea talde feministek, puntu morea ipiniko dau, eraso matxistak prebenidu edota gertatu ezker, erasotuari lagunduteko.

## Jaialdiaren historia goraberatsua

Metal estiloko musikea gustuko dauan dimoztar talde batek sortu eban 2015ean Dimetal Fest jaialdia. Horretarako Dimetaleroak Kultur Elkartea sortu eben. Lehenengoko edizinoan zemen-dian izan zan, baina bigarrenetik aurrera, urri lehenengoaren atzenengo astegoienean izaten da. Alemaniako Wacken herriko heavy metal musika jaialdia legez, Dimetal Fest herria sustatzeko ekitaldi xume baten moduan sortu zan, helburu bardinakaz. Hau da, jaialdia sortu zan heavy metal musikeari lekutxo bat egiteko herriko musika eskaintzan, musika honen azpigereneren ugaritasuna erakusteko, eta Dimako herria ezetuten emoteko Arratiatik haragoko metal zaleen artean. Eta holan izan zan. Dimetal Fest jaialdiagaz, Dima, "euskal metalaren hiriburu" bihurtu zan prentsa espezializaduren esanetan, eta jaialdiaren izen handiak nazi-





noarteko taldeak ekarri ez bazan Dimara, Destruction edo Bonfire talde alemaniarak, esate baterako. Baita, Euskal Herriko talderik ezagunetak be, Su Ta Gar, Koma, Leize, Anestesia, Childrain eta Whäldemar tartean.

1960ko hamarkadan sortu zan, eta azpigenero ugari ditu heavy metalak; rock gogor klasikoz gainera, folk metal, thrash edo death metala, besteak beste. Euskal Herriean, 1980ko hamarkadan egin ziran ezagunak euskerazko metalaren aurrekariak eta harrezkerotik, banda asko sortu dira gaur egungo euskal metalaren panoramea osotuz. Euskal metalaren panoramea aberatsa da eta Dimetal Fest jaialdian ondo ikusten da hori. Izan be, aurten gokaz, guztira, Euskal Herriko 65 banda inguru izango dira Dimetal Fest-en jo dabena: 2015ean, 4; 2016an, 4; 2017an, 4; 2018an, 27; 2019an, 12; 2022an, 4; eta 2023an 10ek emon deutsie baiezkoa jaialdian joteari.

Hasikera-hasikeratik Dimetaleroak Kultur Elkartekoak konziente izan dira jaialdia kultura ekintza emonkorra izan daitekela eta kontzertuez gainera, euskal metalaren azpikulturearen gairen bat jorratzen dabean mahai-inguruak, eta euskal kulturea metalagaz lotzean dabean jarduerak (bertsoak, herri-kiroletan inspiratuko jolasak edo erromeria, esate baterako) antolatu ditue, metalaren festa handi honen egunetan edade guztietako jentea erakarkeko.

Jaialdiak, hazkunde fase bat bizi eban 2018 eta 2019an. Lehenengo hiru edizinoetan, Dimetal Fest hazten joan bazan be -2015ean, 6 talde egon ziran; 2016an, 7 eta 2018an, 8-, 2018an, beste neurri bat hartu eban, egun bitan 30 banda 4 agertokitan eskainiz, eta aurreko urteetako aurrekontua laukoztuz. Helburua, herri edo eskualdeko jaialdia izatetik, Dima euskal metalaren erreferente bihurtzea zan, eta jentea leku askotatik etortea. Kontzertuak ugaritu ziran eta baita kultura ekitaldiak be. Mahai-inguruak, umeentzako jolasak, tatuatzailea, herri-kiril erakustaldiak zuzeneko gitarra emonaldiagaz batera, bazkaria, metal olinpiadak, azoka eta kontzertuen ostean, erromeria egon zan 2018ko edizinoan. Baita, Unai Endemañoren *Rock and Roses* argazki erakusketea be.

Hurrengo urtean, 2019an, formatu handi honeri eutsi eutsan jaialdiak eta 23 taldek jo eban lau agertokitan. Urte haretan, agertoki bitara sartzeako ordaindu behar izan zan, diru iturriak ez ziralako nahikoak tamainu horretako jaialdi bateko gastuak ordaintzeko.

Pandemia sasoiko dekretuek derrigorrezko etenaldia ekarri

eutseen ekitaldi kultural guztiei, baita Dimetal Fest jaialdiari be, eta etenaldi hori aprobetxatu eban Dimetaleroek hausnarketa egin eta aldaketa batzuk egiteko. Horren ondorioz, 2022 eta 2023 urteko jaialdietan jatorri itzultzea ebatzi eban: debaldeko formatu txiki(ago)ra, eta euskal bandei lehentasuna emotera, jaialdi "etxe-koagoa" eginaz. Ildo horretatik, 2022ko kartela lau taldek osatu eban, eta 2023koa, 11 taldek. Dimetal Fest jaialdiaren 2022ko edizinoan, ez zan kultura ekitaldirik egon; hau da, ez zan egon mahai-ingururik, jolasak edo bazkaririk, baina 2023ko edizinoak berreskuratuko ditu jarduera horrekin.

### Etorkizunera begira

Ez bakarrik jaialdiak, jaialdia antolatuten dauan Dimetaleroak Kultur Elkartek be izan ditu aldaketak. Elkarte barritatuak, asmo barriak daukaz eta kultura alkarte izakeran sakondu eta herriaren presentzia handiagoko izatea gura dau. Hori dala-ta, 2023ko urtailaren 27an, Dimetaleroak Kultur Elkarteen itzulera jaia ospatu eban Diman, pintxo-pote eta Arratians eta Penny Fleck taldeen kontzertuakaz, eta 2023an zehar, hileroko kontzertu bat antolatu izan dau alkarteak herriaren, hileraren atzen barikueta. 2022an, jaialdiaren historiari begiratu baeutsien be Dimetalaren berezitasuna eta nortasuna definduteko, aurretik etorkizunari begira jarri dira antolakuntzakoak "etorkizunari leihoa izatea gurako geunke; jente barria, sensazino barriak, euskeraz egiten dabena talde gehiago eta jaialdi etxe-koagoa izatea" adierazoz deutsie BEGITURI.

**Ez bakarrik jaialdiak,  
jaialdia antolatuten  
dauan Dimetaleroak  
Kultur Elkartek be izan  
ditu aldaketak**

**2022 eta 2023 urteko  
jaialdietan jatorri  
itzultzea ebatzi eban:  
debaldeko formatu  
txiki(ago)ra, eta euskal  
bandei lehentasuna  
emotera, jaialdi  
"etxe-koagoa" eginaz**



**BAT EGINDAKO DENDA**

Igorre gure dendakaz

erosketak  
**%33 merkeago**

**15€KO BALIOA DU PREZIOA: 10€**


**BONOAK ERABILTZeko AZKEN EGUNA 2023ko URRIAREN 31a**

- ANARA KIRIOLAK
- ALDEITURIAGA OINETAKAK
- ARRABIKI
- ARRATEK
- BIZARGINAK
- DECORACIÓN Y PINTURA IGORRE
- DIA AUTOSERBITZU
- OSNIBANI TABERNA
- EDOVA ELEKTRODOMESTIKAK
- EGIBI
- EGUZI
- FERRETERIA IRU DEKO
- FRUTA DENDA DEATRIZ
- FRUTAS PINO
- GARDEN IGORRE
- GLOSOI
- HAIZE NATURA ESTETIKA ZENTROA
- ILEAPAINDEGIA ELIXABETE URRIARTE
- ILESTYLE
- INKANORTH
- IRATKO OINETAKAK
- JAIO ARROPA DENDA
- JOYERIA BELAUSTEGUI
- JUBILATUEN TXOKOA
- KILI-KILI
- KIRRI ILEAPAINDEGIA
- KUKUMA TABERNA
- L'ORANE
- MARIAN KIRIOLAK
- MARIO ENKO EZKOIA TABERNA
- MAHAIK PAPER DENDA
- MERKA LABELA
- MUEBLIS IGORRE ALTZARIAK
- MUGARRI DECORACION
- NATI ILE APAINDEGIA
- OLAETXE OPTIKA
- ON EGIN
- ORIGEN BELLEZA SALUDABLE
- ONIPI
- OSTAGI JAITEKIA
- PESCADERIA EL CANTABRICO
- PESCADERIA GRELHAN
- POLITTEI
- REKALDE HARATEGIA
- SEIN
- "SURYA" EGERTASUN ZENTROA
- SKA OINETAKOEN KONPONKE TA BAI MOBILE
- TENTAZIO GAZOA
- TXAPARRO JAITEKIA
- ZAZPI HAZETARA

**ANTOLATZAILEAK**

**IGORREKO UDALA**

**ame**



Diratzen duzue herrikoia

# Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoia

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre



ASIER ABURTO

# "Arantzazu Arratiako herririk gazteena dala esango neuke"

Beste lau urtetarako alkatetza emon eutsien EH Bilduri maiatzeko udal hauteskondeek eta Asier Aburto izango da alkate beste lau urtez. 2015etik hona, EH Bildurena da Arantzazuko alkatetza eta 2019tik dago alkate Asier Aburto.

Arantzazu, ehunekoetan, atzen 20 urteotan BEGITUREN eremuan gehien hazi dan herria da, % 43. Ez bakarrik bertara etorri dan jenteagaitik, etorritako jentea gaztea izanda, umeak be jaio diralako. Ume eta gazte horreei begira, ludotekea, gaztelekua eta etxeak ahalbidetzea da EH Bilduren apustua.



Asier Aburto.

## Erredakzioa

**Hirugarren legealdia da Arantzazun EH Bilduk alkatetza lortu dauala, gero eta babes handiagoagaz. 2015ean boto kopuru bardina lortu eben EAJ-PNVk eta EH Bilduk eta txanpon batek emon eutsan EH Bilduri alkatetza; 2019an EH Bilduk EAJk baino 10 boto gehiago atera ebazan eta 2023an, 50 boto gehiago. Zein da egiten dozun balorazioa?** EH Bilduren ibilbidea Arantzazun, 2007an hasi zan. Ordura arte ez zan egon ezker abertzalearen kandidatura ofizialik herri honetan, eta 2007ko udal hauteskundeetan aurkeztu zan lehenengo kandidatura ANV izenagaz. Hortik aurre-

ra hasten da ibilbide eta lantalde bat, eta 2011n EH Bildu izenagaz aurkeztu ginan. Arantzazun EAJk hegemonia handia euki dau, baina 2011n asko hazi ginan, eta 2015ean, EAJgaz bardindu egin genduan, eta txanpon batek emon euskun udal gobernua. Hortik aurrera uste dot herriak ikusi dauala jente hurbila garala. Izan be, beti saiatuten gara jentetik hur egoten eta gauzak antolatuteko jenteagaz hartu-emonetan egoten. Uste dot horregaitik emon dirala emaitza horreek. Eta ez garalako ibilten proiektu handietan, behar diran gauzetan lan egiten baino. **Udal politikan ibilbide luzea daukazu...** Ni beti mobidu izan naz politika munduan. 2007ko hauteskunde

hareetan be egon nintzan zerrendaburu baina orduan, seguru asko, herriak ez ninduan ondo ezetuten, azken finean beste herri batetik etorritakoa nintzan, ze 2003an etorri nintzan Arantzazura Galdakaotik. 2011tik 2019ra be ni taldean egon nintzan, ez lehenengo lerroan, lantaldean baino eta 2019an aurkeztu nintzan ni alkate izateko holan ebati zalako lantaldean. Eta oin be bai.

Legegintzaldi honetan jente barria sartu da. Aurreko lantaldeagaz oso ondo egon naz, ona eta gertua izan da, baina jente horrek deskantsua behar eban; batzuk jubilauta egozalako eta gura ebelako euren gauzetara dedikau. Sortu dogun lantalde barriagaz oso pozik nago. Freskotasuna ekarri dabe, idea barriak eta gogotsu datoz. Eta hori da behar dana. Oin sartu dan jentea ez da egon politikan inoz, eurentzat mundu barri bat da.

**Legegintzaldi hau segida moduan planteetan dozue ala aldatetako egongo dira?**

Legegintzaldi hau aurrekoaren jarraipena da. Argi eta garbi. Esku artean daukagu bidegorriaren jarraipena, esate baterako. Bidegorri hori Igorreko herriagaz lotura barri bat da, baina Arantzazurako ez da bidegorri soil bat, zeozer integralagoa da. Izan be, errepidearen lehenengo urbanizazioa planteetan dau. Oin errepide itxura daukan hori aldatu egingo da, kale itxurea hartzeako, herriko kale bat da eta. Lanak hasita dagoz. Autobus geralekutik errontondaraino oinezkoentzako bidea egongo da. Ez da izango espalo bat, bidegorriaren jarraipena izango da eta errepidea eta oinezkoentzako tartearen artean banaketea egongo da lora-aska batzukaz. Eta lehenengo urbanizazioa dinot denporeagaz beste gauza batzuk be egingo diralako.

Gainera, irisgarritasuna bermatzen jarraituko dogu plaza inguruan be. 2024ko aurrekontuetan sartu gura dogu Ibarretako bidea ondo jartzea. Bere sasoiaren errepide nagusia herriko erdigunetik atera zanean, bide bat itxi zan etxeetara joateko, baina hor ez da irisgarritasuna bermatzen eta gure gogoia da bide hori behar dan moduan edo ahalik eta ondoen ipintea.


Gero, beste erronka nagusi bat daukagu legegintzaldi honetan, legegintzaldi osorako izango dana, HAPOa, hain zuzen be. HAPOa zabaldu barri daukagu, 2023an zabaldu da. Egin dogun lehenengo gauzea izan da HAPOa garatuko dauan enpresearen aldetik, aurreko arau subsidiarioen garapena, eta hortik aurrera hasiko gara lehenengo planteamentuak egiten. HAPOaren bitartez gura dogu jente gaztearentzako etxebizitzak bermatu. Hori da gure gogoetako bat. Frontoi inguruan, HAPOaren bitartez gustauko litxakigu kirol azpiegitura barria garatu ahal izatea. Eta gazteentzako etxeak egiteko, erreserba moduan itxi gura doguz lurzati batzuk be.

**Biziteko sano leku erakargarria da Arantzazu eta atzen 20 urteotan, biztanleria %43 hazi da. Horrek beharizan batzuk ekarriko ditu.** Egia da Arantzazu atzen 20 urteotan asko hazi dala eta esango neuke Arratiako herririk gazteena izan daitekeela. Nahiz eta azkenengo urteotan, barriro be zahartuten gabizala da nire irudipena. Dana dala, momentu honetan ez daukagu etxebizitza barririk jente gazteari eskaintzeko. Horregaitik HAPOan planteetan dogu lurzoru barriak ipintea horretarako. Hemen egoten diran etxebizitza salmentak partikularren artean izaten dira, eta alokairuan ia ez dago eskaintzarik. Etxebizitzak egiteko preminarik be ez dago, baina etxebizitzak egin diran moduan egiteko be ez. Hau da, nekazal lurak bete dira familia bakarrek etxeakaz. Arantzazun jente gazteak herrian topatzea etxebizitza gura dogu. Azkenengo 20 urteotan, gaztetu egin da gure herria, ze Oilakorbe kalea egin zanean, jente gazte asko etorri zan biziten eta horrek, azkenean, umeak dakar. Horregaitik gaztetu da hainbeste. Handitu da populazioa eta umeak jaio dira.

Etxe erreserba bat prestatu gura dogu, egunen baten etxebizitzak egiteko gazte jentearentzat. Baina ez doguz familia bakarrek etxeak egiteko partzelak prestatuko. **Jente gazte horren beste preminak beteteko ze proiektu daukazu?** Datozen asteetan gura dogu berreskuratu ludoteka zerbitzua astelehenetik eguenera. Oin dala urte batzuk, ludoteka zerbitzu hori udaletxe gainean egoten zan, baina momentu baten hori eroan zan Haurreskolako lokalera, astelehenetik eguenerako zerbitzu hori galduz. Guk berreskuratu gura dogu, ze gure herrian badagoz umeak, eta neguan, zer egiten dau jenteak umeakaz? ba Igorrera joaten dira. Horrek arazo bat dakar, ointxe momentuan herrian dagozan ume horreek ez dira ezetuten euren artean. Ludotekea eurentzako zerbitzua da lagundu ahal dauana umeak herrian geratzea, umeek alkar ezetutea eta gurasoek be alkar ezetutea. Eta holan egiten da herria. Gazteei be gura deutsegu eskaintza bat egin, Gaztelekua. Baina ez dogu gura Gaztelekua *ghetto* bat bihurtzea. Gura dogu zeozer irekia izatea eta bertan euren gustuko ekintzak antolatutea eurakaz batera. Baita eurentzat interesgarriak izan daitekezan berbaldiak be: sare sozialen inguruan, sexuaren inguruan, neska eta mutilen arteko hartu-emonen inguruan...

**Bere neurrirako, esango neuke Arantzazuk apu stu handia egiten dauala kulturearen alde.**

Bai. Gure neurrian saiatuten gara gauzak egiten herritarrak herrian geratu daitezkan eta inguruko herrikoak be etorri daitezkan. Pandemiagaz hori eten egin zan eta ezin izan genduan gauza askorik egin, baina azken urteotan, tabernan kontzertuak antolatu doguz udagoien, negu eta udabarrian, eta oin udagoienean barriro berreskuratu doguz kontzertuok. Hortik jarraituteaz gainera, antzerkiak eta bakarriketak eta holango ekintzak antolatuteko asmoa daukagu. Gure aurrekontua ez da oso handia, gure herriko lokalak be ez dira oso handiak baina gauza horreek kontuan hartuta, gauzatuko dogu kultura eskaintzea.



# MERKARTEA 2023

HERRI BAT  
MERKATU  
BAT

**IRAILAK  
16**

**EGITARAUA**

- 10:00-15:00:  
**MERKARTEA AZOKA**
- 12:00-14:00:  
**PHOTOCALL**  
(Baserritarrez jantzita datozenentzako)
- 18:00:  
**"TABERNA IBILTARIA" HERRITIK**
- 21:00:  
**KUTTUNE FOLK TALDEAREN IKUSKIZUNA**
- 23:30:  
**ERROMERIE: BIDEAN**









**aek** euskara praktikoa

**euskara  
hurbil,  
zu urrun heltzeko**

## Arratiako AEK

### MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordu-tegi zabalak

Elexalde 10, Igorre  
94 631 56 57 / 607 632 916 · arratia@aek.eus

### DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak,  
maila egiaztatuz gero.

Arratiako udal guztiak  
diruz lagunduta



# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)

## ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!



-  1.244 JARRAITZAILE
-  386 JARRAITZAILE
-  2.478 LAGUN



## MENDI LASTERKETA

## Seirehun mendi lasterkarik hartuko dabe parte Gorbeia Suzien 32K lasterketan

Urri lehenengoaren 23an izango dira Gorbeia Suzieneko lasterketak: 32 kilometrokoa eta 21 kilometrokoa, hain zuzen be. Lasterketa nagusia, 32 kilometrokoa, SWS Skyrunner World Series-en barruan dago, hau da Munduko Kopan eta Zeanuriko lasterketa puntuagarria izango da finalera sailkatzeko. Euskal Herriko eta mundu zabaleko 600 lasterkarik emon dabe izena lasterketan parte hartzeako. 21k egiteko, beste 200 lagunek.

## Erredakzioa

Lasterketa nagusiko korrikalariak 09:00etan abiatuko dira eta partaideen artean, igazko irabazlea Nico Molina, Onditz Iturbe, Oihana Azkorbebeitia eta Zaid Ait Malek mendi lasterkari ezagunak egongo dira, besteak beste. Lasterketa ikusteko Pagomakurrera igoteko, kaminoa zarratuta egongo denez, antolatzaileek debaldeko autobus zerbitzua ipiniko dabe, Zeanuritik eta Areatzatik. Gainera, ETBk eta Teledeportek zuzenean emongo dabe karrera, baita antolakuntzak be *streaming*en bidez.

Gorbeia Suzien 21K, 11:00etan hasiko da.

## Entrenamentua Oihana Azkorbebeitiaz

Lasterketarako girotzen hilaren 10ean hasi ziran zaleak. Izan be, egun horretan Zeanurira hurreratuak, Oihana Azkorbebeitiaz batera bidearen zatitxo bat egiteko aukerea izan eben, entrenamentu moduan.

Prestaketari jarraituz, mendi lasterketak egiteko elikadura egokiena zein dan gaineko berbaldia egingo dau Jorge Garcia Dihinx medikuak, hilaren 16an, 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean. Garcia Dihinx ezaguna egin dala metereologia blog bateri esker, azaldu deutso BEGURI Jurek Ziemkiewicz antolakuntzakoak. "Blog horretan astean eguraldi iragarpen bi egiten dauz, Aragoiko Pirinioetakoak. Oso-osu ospetsu egin da horregaitik. Eta mendiko eskiaren gaineko liburu batzuk be atera dauz ibilbide askoz".

## Astegoen osoa

Gorbeia Suzien mendi lasterketa dala-ta, astegoen osoko plana dago Zeanurin, lasterkari eta zaleentzat. Barikuan, hilak 22, hitzaldi tekniko eta mendirako material espezializauko azoka egongo dira. Aurten, aurreko urteetan baino handiagoa izango dala azokea dinoe antolatzaileek.

Zapatuan da egun handia eta

lasterketez gainera, kultura jarduerak be egongo dira. Egun osoan zehar, azoka eta 5 *food-truck* egongo dira herrian, hurrez hurrez dan jentea jateko faltan ez egoteko. Umeentzako puzgarriak be egongo dira eta, betiko moduan, txahala erreko da korrikalariet bazkaldu dagien. Arrastian, 18:00etan Gibelurdinek taldeak musikea eroango dau herritik zehar, eta gero gauean dj-a eta jaia egongo dira. Txosnea be egongo da.

Domekan, urtero lez, umeen eguna izango da. Goizeko 11:00etan izena emon eta 12:00etan urtengo dira etorkizuneko lasterkariak euren neurriko Gorbeia Suzien lasterketa egiteko. Herrian umeentzako ekintzak egongo dira; herri-kirolak, tartean.



Onditz Iturbe igazko Gorbeia Suzien.

## MENDI MARTXEA

## Areatzako lehengo bideak ezetuteko martxea, hilaren 30ean izango da

Urri lehenengoaren 30ean izango da Areatzako Mendi Martxearen 10. edizioa. Ibilbide bi dagoz aukeran: bata, 21 kilometro eta 1.000 metro desnibelduna eta bestea 29 kilometro eta 1.800 metroko desnibela daukana.



## Erredakzioa

Martxearen helburua, hasikerako berbera da: Areatzako lehengo bideak erakustea. Izena hilaren 21era arte emon ahal da [areatzakomartxa.blogspot.com](http://areatzakomartxa.blogspot.com) webgunean.

Izena emonda izan arren, Areatzako plazatik pasau behar dira partaide guztiak 07:00retatik 07:45era bitartean. Plazatik bertatik abiatuko dira martxa luzea egin gura dabenak 08:00retan; laburra egiteko barriz, Bikozganetik urtengo dira partaideak, eta Bikozganera joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzeak 08:00retan.

## Zaztaparrak Asti Taldearen urteurrena

Martxearen hamargarren urtea dala ospatuteaz gainera, Zaztaparrak Asti Taldearen 27. urteurrena ospatuko dabe Areatzan. Hori dala-ta, hainbat ekintza antolatu ditue Zaztaparretakoak. Jaia, 10:30ean hasiko da Zaztaparretako taldekide batek txupina botata. "Goizean zehar txoko desbardinak egongo dira herritik danok batera libertitako, gero Zaztaparkideontzat bazkaria egingo da frontoian, eta arrastian zehar musika eskaintza anitza egongo da herritik" azaldu dabe taldekoak.

Txokoei jagokienean, sei txoko egongo dira: Jolas erraldoiak eskainiko dituan Libertidu izenekoa Karpoko landan; Irudimentxu izenpean, muralak egingo ditue eskoletan; Zaztaprix gurpil guneak egongo dira parkean eta frotoian; Mertzantunin, arpegiak

eta galtzerdiak margotuteko gunea egongo da Medikuko parkean; lasai egoteko txokoa, Apale, be egongo da Kurutzeta plazan eta ludotekan, Altzor Kuntuna, "Zaztamundua" ezetuteko aukerea egongo da.

Eguerdiko 14:30erako ostera bazkaria antolatu dabe eta txartelak erosi ahal dira hilaren 23ra arte leku honeetan: Areatzako Bixer eta Hagina tabernetan, Arteaiko Herriko Bentan, Arantzazun Montero tabernan, Dimako Baltzola tabernan, Igorren Ezkina eta Herrikoan, Lemoan Atxetan, Zeanuriko jubiladuenean eta Zerberion Amañen. Menu berezirik behar izan ezker 688 898 765 telefonora idatzi behar da.

Arrastiko 18:00etan, Orkresta Elektrotarangak animauko dau giroa eta 21:30ean, Beranduegi taldeagaz erromeria egongo da. Gero, dj batek ipiniko dau musikea.

Zaztaparrak Asti Taldekoek 27 urte honeetan, taldetik pasau diran guztiak jaira batzeako deia egin dabe; izan be, "herriko beste alkarte batzukaz egun polita antolatu dogu!" dinoe.

## Areatzako garagardao alkarte

Beerllaro, Areatzako garagardao alkarte, da jaia antolatu dauan herriko beste alkarte. Beerllarok, 12:30ean, hasteko Oktoberfest garagardaoaren jaia antolatu dau eta saltxitxak salduko ditu egun osoan zehar. Gero, 13:30etan, Dirty Old Band taldeak kontzertua eskainiko dau eta 20:00etan, I. Beerllarofest Kupel Jaurtiketa Txapelketa egongo da.

## BISITA GIDATUAK

# Areatzako uribilduan eta Ubideko kaltzadan bisita gidatuak hilaren bigarren hamabostaldian

Zazpi ibilbide antolatu ditu Gorbeia Turismok urrietarako, eta euretako bost urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian be egiteko aukerea dago.

### Erredakzioa

Holan, hilaren 23an, Areatzako uribilduan bisita gidatua eta, hurrengo egunean, Ubideko antxinako kaltzadatik ibilaldia egin daitezke. Orozko ezetuteko aukerea be badago hilaren 17an eta Otxandioko inguruak bisitatu daitezke mendiko bizikletan, edo urigune historikoari bisitea egin oinez hilaren 30ean.

Bisita gidatuak mota guztietako publikoei zuzenduta dagoz eta ez dabe gitxieneko parte-hartzaile

kopururik behar, baina plaza mugatuak dira. Prezioak 4 euro, 12 urtetik gorakoentzat; 2 euro, 8 eta 12 urte bitartekoentzat; eta doban 8 urtetik beherakoentzat dira. Prezioan pintxo-potea sartzean da bisitea amaitzen dan herrian. Trukea egingo dabe: Orozkoko Taberna Itxinak, Otxandioko Danoena tabernak, Zeanuriko Txoko Sagarnak, Zeberioiko Taberna Zaharrak, Areatzako The Quiet Cornerrek eta Antzasti museoak, bere *gourmet* eremuan.



## PELOTEA

# Amaia Aldai-Uxue Oses bikoteak Udako Master Laboral Kutxako finala jokatuko dau

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 13an, Galdakaoko Kurtzea pelotalekuko harmailetan giro itzela egoala jakin ahal izan ziran, opor sasoiaren ardatz izan dan Udako Master Laboral Kutxako bikote finalista bien izenak, eta partidu handi biren ostean, lehiatuak eta ikusgarriak suertatu ziran biak, Arrizabalaga-Galeanok eta Aldai-Osesek jokatuko dabe urri lehenengoaren 29an Hondarribian final handia. Aldai-Oses bikoteak finalerako txartela, Etxegarai eta Gaminderi 22-18 irabazita lortu eben. Aldai



izan zan peloteari beste martxa bat sartuta, lehia bere aldera hautsi ebana.

## FUTBOLA

# Ligako lehen partidua irabazita hasi dau ligea andrazkoen Arratia A taldeak

Hilaren 9an jokatu eban Emakumezkoen RFEF Hirugarren Mailako bigarren multzoan dagoan andrazkoen Arratia A taldeak ligako lehen partidua Urbietan Santandergo Monte taldearen kontra eta 2-1 irabazi eban.

### Erredakzioa

Lehen zatia 1-0 amaitu zan, June Uriarte zornotzarrak sartutako gol bateri esker, baina bigarren zatian kantabriarrek bardindutea lortu eben. Arratiarren garaipenaren gola atzen minutuan heldu zan Nerea Beitia lemoztarrari egingako penalti bateri esker. Beitiak berak bota eban penaltia eta 2-1 ekoa ipini eban markagailuan.

Lehen partiduaren ostean Arratiak 3 puntu ditu eta hirugarren dago sailkapenean.

Datorren partidua Salamanca FF taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo hilaren 16an, arrastiko 18:00etan.

### Andrazkoen Arratia B

Bizkaiko Lehenengo Mailan dagoan Andrazkoen B taldeak osteria urri bigarrenaren 7-8ko astegienean hasiko dau ligea Urbietan Basauriko Kimuak B taldearen kontra.

### Gizonezkoak

Arratia A eta B taldeek eta Lemoako Harrobik urri lehenengoaren 23-24ko astegienean hasiko dabez euren ligak. Arratia Ak Dinamo San Juan taldearen

kontra jokatuko dau Urbietan, B taldeak be Urbietan hasiko dau ligea Ermua A taldearen kontra eta Lemoako Harrobik Begoña A taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo.



Andrazkoen Arratia A taldeko jokalariek bigarren gola ospatzen.

## BOLA-JOKOA

# Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea jokatuko da urri lehenengoaren 30ean Altzustan

### Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 30ean, zapatuan, arrastiko 17:30etik aurrera Alzustako bolalekuan jokatuko da Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea.

Udalerria osotzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte taldeka jokatzen dan txapelketa honetan: Altzuak, Alzustak, Asterriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribeak.

Taldeak 4 bolarik osotuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiek botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botaten dauan kofradia izango da irabazlea eta bardinketea egon ezkerre, gerrea jokatuko litzateke euren artean.

Igaz altzustarrak izan ziran irabazleak 18 txirlo botata. Bigarren



Esteban Ozerinjuregi, aurtengo bakarkako txapeladuna.

Otzerinmendik egin eban eta hirugarren Ipiñaburu-Undurraga

sailkatu ziran, 16 eta 13 txirlogaz hurrenez hurren.

## KOTXEPIN

Umeentzako ikuskizun bi  
Kotxepinen hileon

## Erredakzioa

Besoetako ipuinak ipuin kontaketa hilaren 20an, 18:30ean eta Gure kanoa txotxongilo antzerkia hilaren 30ean, 18:30ean, egongo dira Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Besoetako ipuinak 12 eta 36 hilabete bitarteko umei eta euren gurasoei zuzendutako ipuin kontaketa berezia da. "Maitasun handiz sortu dot; lau istorio, lau liburu, kanta bi, pote bat, txoritxo, kabia, kordioak, hodeiak eta ilusinoak erabili dodaz" dino Ana Apikak bere blogean. Haur literatura murgiltzeko asmoz, ipuinak kantuakaz lagunduta dagoz.

## Txotxongilo antzerkia

Zurrunga Teatro Konpainiak Gure kanoa haurrentzako mahai

txotxongilo antzezlan eskainiko dau Lemoan urri lehenengoaren 30ean. Antzezlanak, Abba, Senegalgo familia arrantzale baten jaiotako umearen istorioa kontetan dau. Abbak Izaro ezetuko dau, arrantza-ontzi erraldoi baten patroiren alabea eta gazte-txo biek euren errealdade desbardinak alkar trukatu dabez, mundu bi, begirada bi.



## LEHIAKETEAK

Euskerearen arnagune  
diran udalerrietako  
gazteentxoentzako  
bideo sormen lehiaketea  
antolatu dabe

Sariak.

## Erredakzioa

Arnasetik bideo sormen lehiaketea da, euskerearen arnaguneak osotuten dabezan udalerrietako 10 eta 16 urte bitarteko gazte-txoei zuzendua (LH-5etik DBH-4ra). Urri bigarrenaren 1ean zabalduko da lanak biartzeko epea eta 24an zarratuko da. Lehenengo edizinoan, 2022koan, 99 sormen lan jaso ziran: LH 5-6 mailatako 40 lan; DBH 1-2koak 52; eta DBH 3-4ko 7 lan.

Edadearen arabera hiru kategoriatan dagoz Arnasetik sormen lehiaketan, eta egin beharreko lanak desbardinak dira katego-

ria bakoitzean. Holan, LH 5 eta 6ko ikasleek, formatu librean; hau da, marrazki, olerki, bertso, bideo edo abesti baten bidez, esate baterako, azaldu behar dabe euren herria zelangoa dan, zer egin daiteken bertan eta zergaitik dan egokia euskera maila hobetuteko. DBH 1 eta 2koek barriz, gehienez minutu biko bideo baten, herriko esamolde berezienak eta euren esangura azaldu behar dabez umorez eta DBH 3-4koek, Nahia Silleroren bideoa ikusita, gehienez minutu biko bideo bat sortu behar dabe, modu originalean euskal kultura eta musikea balioan ipiniz.

## LIBURUA

Almirante Egia 1936an  
Euzkadiko Itsas  
Armadaren sortzailea  
izandako Jokin Egiaren  
biografia aurkeztu dabe

## Erredakzioa

Liburua alkarlanean idatzi dabe Miren Egia Orrantiak, Jokin Egiaren alabeak, eta Jesus Etxezarraga idazleak, Egiak gordetzen ebazan familiaren artxiboko materialakaz. Jokin Egia gerra bitan burrutatu zan, hiru armadatan ibili zan sargentu eta britaniar armadeak kondekorau eban. Liburu hau "gerren urte garratzak" ulertuteko funtsezko obra da Xabier Irujo editorearen berbetan.

Gurasoak Igorreko Ubetxaga eta Ziarrustibeitiakoak izanda, Jokin Egia (Bilbo 1903-Liverpool 1956) arratiartzat eukan bere burua. "Bilboko Zazpikaleetan bizi ziran guraso arratiar eta aberztaleen seme, itsasgizona zan lanbidez. Ontzi-kapitain titulua lortu eban 1930ean eta 1933an Bilboko Portuko kapitain kargua jaso. 1936ko urri lehenengoaren 15ean, Euzkadiko Gudontzidiko buru izentau eban. Iparraldera erbesteratu zan, eta Irlandara eta Erresuma Batura gero. Han, lehe-

nengo, Frantziako Indar Librean serbidu eban, eta, segiduan, Aireko Indar Britaniarrean (RAF), bombarderoetako hegazkin ingeniari legez, aliaduen konboiak alemanen urpekontzietatik jago-teko beharretan" laburbildu dau bere aitaren bizitza Miren Egia liburuaren egileetakoak.

Biografiak joan-etorri honeek jasoten ditu, testuinguru politiko eta militarrean kokatuz, argazki eta dokumentuez lagunduta. Liburua, almiranteak bere



## FESTIVAL

Tokikomek saria jaso dau  
Gasteizko FesTVal jaialdian

## Erredakzioa

Euskal Irrati Telebistak Tokikom taldeari emon eutsan EITB Saria, Principal Antzokian urri lehenengoaren 9an egindako jaialdia zarratuteko galaren barruan.

Tokikomek Euskal Herri osoko euskerazko 78 toki komunikabide batzean ditu, herriz herri eta eskualdez eskualdeko eguneroko informazioa emoten dabenak, tartean BEGITU. Sariagaz, EITBk Tokikomen 10 urteko ibilbidea nabarmendu gura izan dau, eta euskal esparru komunikatiboaren alde egindako lana autortu. Toki komu-

nikabideen lanaren garrantzia azpimarratzeaz gainera, Tokikomek alkarlan eredu barriak garatu ditu, tartean EITBgaz beragaz, sektorearen hedapena sustatu eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Tokikom eta EITBren arteko alkarlan hori hainbat ekimenen bidez gauzatzen da gaur-gaurkoz. Holan, beste batzuen artean, Saretzen proiektuaren bidez, EITBko zein Tokikomeko kazetariak datu-kazetaritzearen inguruko lanketea egiten dabe alkarregaz.

Tokikomeko zuzendariak, Alaitz Artolazabalek, eta presidentek, Iban Arantzabalek, jaso eban sa-

Liverpool-eko etxean eukan eta alabeak gordetako dokumentazioan oinarrituta dago: kontratuak, txostenak eta abar, euretako asko inoz argitaratu bakoak.

## Zazpi urtetako lana

Liburua, Montevideoko Euskal Erria argitaletxeak 2021ean argitaratu baeban be, aurtengo udan aurkeztu da Donostian. "2015ean egitea pentsau, lau urte tertzioan landu eta 2021ean argitaratu zan Almirante Egia. Biografia del jefe de la marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi liburu, pandemia eta beste ezbehar batzuk bitarteko, aurtengo garagarriaren 28an auzetuz genduan Donostian azkenik" azaldu deutso BEGITU. Jesus Etxezarragak. "Xabier Irujoren eraginez Miren Egia Orrantiak, Liverpooleen bizi dan Egiaren hilondoko alabeak eta biok idatzi genduan. Miren Egia alde familiarra eta personala landuten dau batez be, eta nik osteraren haren ibilbide profesional, militar eta politikoa".

ria. Biek be pozez eta eskertuta hartu eban saria. Alaitz Artolazabalek nabarmendu ebanez, "EITB lango enpresa handi batek Tokikomen txikitik egiten dogun ahalegina autortu izana oso barri pozgarria da, holango jaialdi baten euskera hutsezko hedabideak autortzea pozgarria dan legetxe". Iban Arantzabalek, bere aldetik, azpimarratu dau globalizazioaren aroan, zero kilometroko komunikazioak inoz baino garrantzi handiagoa daukala gizarte demokratiko eta kohesionatua bermatzeko, eta zeregin horretan ezinbestekoa dala euskal hedabideen arteko lankidetzeta. "Tokian tokioak komunitate biziak dira eta komunikazio gertuko eta fidagarriak behar ditue".

## Tokikom

Tokikom 30 bazkidek osotuten dabe, guztira 78 toki komunikabide kudeatzen dituenak. 250 langile baino gehiagok dihardue bertan, zero kilometroko komunikazioa landuten: gertuko komunitateagaz bat eginda, informazioa bertatik bertara landuteko, inguruko norbanako eta entidadeakazko konpromisotik, modu zintzo eta profesionalan.



## IKASTAROAK

# Izena emon daiteke Arantzazu, Artea eta Zeanuriko ikastaroetan

### Erredakzioa

Arantzazu, Artea eta Zeanuriko Udalek aurkeztu dabe 2023-2024 ikasturterako udal ikastaroen eskaintzea eta izen-emotea zabalik dago. Aurreko urteetan zabalduko bideari jarraituz, ariketa fisikoa egiteko aukera anitza eskaintzen da. Horrezaz gainera, aitzazukoak dira be, Arantzazuko sukaldaritzako ikastaroa, Arteako jantza aukera zabala eta Zeanuriko, edadekoei zuzendutako osoko eskaintzea.

Zeberio ikasturterako eskaintzearen barri emon ez dauan arren, tailer bi eskaini ditu urrietarako.

### Arantzazu

Yoga, Sukaldaritzako, Mantenimendu gimnasia eta Entrenamendu funtzionala ikastaroak egin daitezke Arantzazun. Izena udaletxean emon behar da eta izen-emotea zabalik dago urri lehenengoaren 28ra arte. Urri bigarrenaren hasiko dira ikastarook.

Astean behin izango dabez eskolak, arrastian, yogan edo sukaldaritzan izena emoten dabenek. *Mantenimendu gimnasia* eta *Entrenamendu funtzionala* astean bitan izango dira; lehenengo, goizez eta bigarrena arrastiz. Izena emoterakoan ordaindu egin behar da ikastaroa.

### Artea

Hilaren 22ra arte emon daiteke izena Arteako udal ikastaroetan. Batez be ariketa fisikoa egiteko aukerea emoten dabe, baina ez bakarrik. *Eskulanak*, *Zurezko talla eta pirograbazioa*, *3. adinekoentzat gimnasia*, *Zumba*, *Pilates*, *Entrenamendu funtzionala*, *Hipopresiboak*, *Biodantza*, *Euskal dantzak* nagusientzat, *Euskal dantzak* 5 eta 12 urte bitartekoentzat, *Dantza moderna* 5 eta 8 urte bitartekoentzat, *Dantza moderna* 9 eta 13 urte bitartekoentzat eta Irakurleen txokoa Xabier Mendigurenegaz. Ikastaroak urri bigarrenaren lehenengo astean hasiko dira.

Ikastaro guztiak urri bigarrenetik bagilera arte dira. Irakurleen txokoa eta *Biodantza* doban dira. Irakurleen txokoa hilaren atzen barikuan, 19:00etan, Kultur Etxean izaten da eta *Biodantza* eguenetan izango da eskolako gimnasioan. *Euskal dantzak* nagusientzat, 50 euroko prezioa dauka eta beste guztiek 100 euro ikasturte osoa gaitik. *3. adineko gimnasia*, *Zumba*, *Pilates*, *Entrenamendu funtzionala* eta *Dantza moderna* ikastaroak

astean bitan izango dira; gainontzekoak, astean behin.

### Zeanuri

Hilaren 4an emon eban jakitera Zeanuriko Udalak 2023-2024 ikasturterako udal ikastaroen eskaintzea eta izen-emotea zabaldu zan. *Zumba*, *Pilates*, *E. Funtzionala*, *Umeen dantza*, *Txikung*, *Emozioen tailerra adinekoentzat*, *Adinekoentzako gimnasia* eta *Adimen susperketa eta eskulanak* ikastaroek, euskera eskolaz gainera, osotuten dabe eskaintzea.

Izen-emotea udaletxean egin behar da hilaren 29ra arte eta hiru hilabeteko konpromisoa bete behar da gitxienez. Plazak mugatuak dira eta apuntetan diranak dagozan lekuak baino gehiago badira, zozketea egingo da eta Zeanurikoek eukiko dabe lehentasuna. Adinekoek ikastaroetara joan-etorria egiteko garraio zerbitzua behar izan ezker, eskatu leikie 609 610 855 telefonoan.

Edadekoei zuzendutako ikastaroak, *Adimen susperketa eta eskulanak* eta *Adinekoentzako gimnasia*, izango dira hasiko diran lehenengoak, urri lehenengoaren 18an, hain zuzen be. Urri lehenengoaren 22an, *Emozioen tailerra adinekoentzat* hasiko da eta gainontzekoak urri bigarrenaren hasiko dira.

*Euskara eskolak* astean bitan izango dira, 6 ordu astean, eta izen-emotearen arabera osotuko dira taldeak eta ordutegiak.

### Zeberio

Zeberio 2023-2024 ikasturteko eskaintzearen barri oindino emon ez arren, egun biko tailerra eta bost saioko ikastaro bat eskaini ditu urri lehenengoan hasteko. Holan, urri lehenengoaren 23 eta 24an, 14 urtetik gorako andra eta "identidade disidenteentzako" *Autodefensa feminista* ikastaroa egongo da 10:30etik 14:30era, eskola zaharrean, Esther Lopez Mongeren gidaritzapean. Izena aldeztu aurretik emon behar da 94 648 10 79 telefonoan.

Andrazkoentzako zoru pelbikoa indartzeko ikastarorako be izen-emotea zabalik dago. Ikastaroa hilaren 27an hasiko da, Idoia Irazabal Aranbarri formatzailearen eskutik, eta bost saio izango ditu. Beste laurak urri bigarrenaren 4, 11, 18 eta 25ean izango dira, 18:30etik 20:30era eskola zaharrean. Izena hilaren 22ra arte emon behar da 94 648 10 79 telefonoan.

## ARANTZARTE

# Arantzarte Dantza Taldearen 50. urteurrena prestatzen hasteko bilera irekia deitu dabe urri bigarrenaren

Arantzarte Dantza Taldea 1974ko maiatzean sortu zan eta 2024an, 50 urte beteko ditu. Urri bigarrenaren 7an bilera irekia egingo dabe urteurreneko ospakizunak antolatuten hasteko. Horrezaz gainera, Euskal jantzak oinarritzat hartuta "ederto pasetako gogoia" daukien guztiak jantza taldearen parte izatera animau gura ditue Arantzartekoek. Aurreko 50 urteetan egin dauan moduan, gaur egun be Arantzartek euskal jantza eta kultura zabalduten jarraituten dau. Taldekoei arabera, "jantza taldea izan arren, hori baino askoz gehiago da bertan parte hartzean dabeneztat: lagun artean batzeako, parrandarako, bidaiatzeko... aukerea emoten dauan alkartea da".

### Erredakzioa

#### 50 urteko historia

Taldeari hasikerea, orduan Arantzazun eta Artean parrokoa zanak emon eutsan. Arratian helduen jantza talde baten beharra egoala eretxita, parrokoak Juanti Menikari proponidu eutsan jantzan irakastea eta holan, apurka-apurka sortu eben gaurko taldea.

Hainbat lagunek hartu eben parte proiektu horretan; gehienak, Artea eta Arantzazukoak eta Arantzazu eta Artearen arteko berba-joko batez ipini eutsien izena jantza taldeari. "Euskal kulturearentzat sasoi baltzak izan ziran taldearen sorrerarenak; izan be, Franco bizirik egoan" dakarre akordura taldekoek. "Euskalduna zan edozer, arrotza zan eta eten beharrekoaren legea ezarri eban jeneralak, halan, arantza-artean esangureak zentzuna emon eutsan taldearen izenari".

Hasikera, entseguetarako lekua aldatu behar izaten eben sarri, Igorreko Institutuko gimnasia 1979-1980an aldatu ziran arte. Han, taldeak egonkortasuna lortu eban eta taldeari etorkizuna bermatuko eutsien umeak hasi ziran. Atzenik, 2005-2006 ikasturtean, Igorreko Kultur Etxera aldatu ziran.

Jantza taldearen lehenengo plazea, Zeanuriko Ipiñaburu auzokoa izan zan. Gero, hamaika lekutan izan da taldea. Hasikeran, ez urrun, Etxanon, Boroan, Santutxun... eta esperientzia hartuta, Espainiako estadiuan be bai; Fuente del Fresno (Ciudad Real), Zamora uriburuan, Las Quintanillas-en (Burgos) eta Tacoronten



tolatu dabez 50 urteotan, egun bazuetarako kanpoko taldeak gurera konbidatuz, kanpokoei gure herria erakutsi, eta euren jantzakaz disfrutau dagian bertakoek.

#### Genero rolak baztertuz

Berrogeta hamar urte honeetan, tradizioa, euskal kultura eta euskerearen transmisioa izan dira Arantzarteren kezkek. "Hasikeran, tradizioz eta ohituraz, mutilenak ziran jantzak, mutilek plazaratuten ebezan eta neskenak, neskek". Baina "oin dala 20 urte pasatxo, jantza taldeak tradiziozko genero eta rolak alde batera itxi" eta hori gailenduta, oin "jantzak eta jantzariak" dituala Arantzartek dinoe, generoari erreparau barik. Holan, 2014az geroztik, Kaxarranka andrazko batek jantzatzen dau eta aurten lehenengo Bizkaiko Dantzari Dantza neska zortzikote batek egin dau.

(Tenerife), esate baterako. Europan be leku ugari bisitau dabez euskal jantzak erakusten: Alemania, Belgika, Polonia, Frantzia, Portugal, Irlanda, Italia, Austria... Eta Hego Ameriketara be joan dira, Brasilera, hain zuzen be.

Gainera, hainbat topaketa an-





# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arigorriagako erdigunean, homiduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### TXAKURRAK EMOTEN DODAZ

Hiru ehiza txakur daukadaz emoteko. Hilebete bi daukiez. Igorreko Agarreko baserrian dagoz. Interesdunek deitu: 661 259 002.

#### UGER EGITEKO IRAKASLE BILA

Uger egiteko irakasle partikular/entrenatzaile baten bila nabil. Telefonoa: 608 062 592.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Areatzan garajea alokatzen da; bertan, motorra edo atoa gordetzeko modukoa. Interesdunek deitu telefono honetara: 615 005 959.

### LANA

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

#### INGELES IRAKASTEKO IRAKASLE BILA

Ingelesa irakasteko klase partikularak etxean emoteko irakasle bila nabil, DBH 2. mailako ikasle batentzat. Interesdunek idatzi WhatsApp bidez 658 757 899 zenbakira.

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Gari & Maldanbera taldearen kontzerturako.

Naiara Maguregi (Lemoa)  
Leire Amuriza (Otxandio)



**2** Kristonak taldeak emondako materiala.

Igor Estankona (Artea)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Etxarra egin eta bukunduten dogu.  
Tel.: 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**ASEGURUAK: ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**KIRRU** ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
SABINO ARANA 38 IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**begitu** eus

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel.: 94-673-70-87  
Tel.: 609-79-40-54

**ZEKUTZE** JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zikutzekutze@hotmail.com](mailto:zikutzekutze@hotmail.com)

**begitu** eus

# ORTOMOBILITY

Zure mugikortasuna hobetuz  
Bizkaiko esposizio handiena, zugandik gertu!

- SALMENTA ETA ESPOSIZIOA
- ZERBITZU TEKNIKOAK
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA

**%5eko deskontua\***  
ORTOMOBILITY

Txartel hau moztuta ekarri eta %5eko deskontua edukiko duzu, dendako edozein artikulutan, lehenengo erosketan.  
\*Eskaintza hau baliagarria da abenduaren 15era arte.




www.ortomobility.com  
info@ortomobility.com  
Mendieta 1 Lemoa BIZKAIA  
946 738 203

# begitu **20** urte

## BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

**2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
 Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus 

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.